

Aita Donostiaren 'Kantutegia' argitaratu du Eusko Ikaskuntzak

Haren lana bildu zuen Jorge Riezuren biobibliografia ere kalean da

Eusko Ikaskuntzak Aita Donostiaren 'Euskal Kantutegia' aurkeztu zuen atzo, Vidal Perez de Villarrealak Jorge Riezuri buruz idatzi duen biobibliografiarekin batera. Jorge Riezu arduratu zen, hain zuzen ere, Aita Donostia hil zenetik, haren obraren zaindu, aztertu eta prestatzeko lanaz. Aita Donostiaren 'Kantutegia' lau liburuk osatzen dute eta aurretik bere lan literarioa jasotzen zuten bost liburuen jarraipena dira.

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Jose Gonzalo Zulaika Arregi, Aita Donostia, musikari adimentsua izan zen eta konposizioaz gain, musika ikerketa historikoa eta euskal folklorea garatu zituen. Bere musika lan guztiak hamabi liburutan daude bilduta. Eusko Ikaskuntzak atzo aurkeztu zituen lau liburuek, ordea, Aita Donostiak bildutako kantak jasotzen dituzte, 2.000 inguru osotara eta Nafarroakoak gehienak. Lehen ere, 1983an, 'La gran enciclopedia vasca-k' Aita Donostiaren artikuluak jasotzen hiru liburutan eta 1985ean, halaber, Eusko Ikaskuntzak bere hitzaldiak eta gai-

nontzeko lanak jaso zituen beste bi liburutan. Kantutegiaren ondoren, hamargarren liburua prestatzen hasi da Eusko Ikaskuntza, Aita Donostiaren lan etnografikoa bilduko duena, hain zuzen ere.

Kantutegiak biltzen dituen kanta gehienak argitaragabeak eta ezkutuan egondakoak dira. Gutxi batzuek, hala ere, Aita Donostiak aurkitutako lehenengoek, 1921ean ikusi zuten argia lehen aldiz. Kantuekin batera, bakoitzari buruz Aita Donostiak jasotako informazioa ere biltzen du Eusko Ikaskuntzak argitaraturako kantutegiak, kanta bakoitzaren data eta jatorria, besteak beste.

Eusko Ikaskuntzako arduradunek azaldu zuten, ordea, ez zen lan erraza izan Aita Donostiarena, kantak entzun eta berehala idatzi behar baitzuten. Hori dela eta, akatsen bat egotea litekeena dela azpimarratu zuten. Aita Donostiaren 'Euskal kantutegia', halaber, «herri honetako musika, etnografia, historia eta kulturaren ezaugarriak» ezagutzeko oso baliagarria dela aipatu zuten Eusko Ikaskuntzakoek, Resurreccion Maria Azkueren 'Cancionero popular vasco-rekin' batera.

Bestalde, Vidal Perez de Villarrealak Jorge Riezuri buruz idatzitako biobibliografia ere aurkeztu zuen Eusko Ikaskun-

tzak. Jorge Riezuk, erran bezala, Aita Donostiaren lana bildu eta ikertu zuen eta, horretaz gain, haren lagunmina izan zen.

Vidal Perez de Villarreal, zehazki, bien arteko «sinbiosiaz» mintzatu zen prentsaurrekoan eta hala idatzi zuen iaz Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkarian.

RIEZUREN LANA GORAIPATU Perez de Villarrealak Riezuk Aita Donostiaren

ikerketak biltzeko egindako lana goraipatu zuen eta erran zuenez, haren egunkaria erabili zuen. Bertan, kanta bakoitzaren datu zehatzak bilduta zituen Aita Donostiak. Bien arteko harreman estua ere lagungarri izan zitzaion Jorge Riezuri, Perez de Villarrealen ustez. Hauek guztiak eta beste hainbat kontu biltzen ditu Perez de Villarrealak Jorge Riezuri buruzko biobibliografian. Liburua hiru zatitan dago banatua eta datu biografiko eta bibliografiak gain, Jorge Riezuren une gogoangarriak ere jaso ditu Perez de Villarrealak, argazkitan.

Jorge Riezuk ilusio handiz ekin zion Aita Donostiaren kantutegia prestatzeari, Eusko Ikaskuntzako arduradunek azaldu zuten, eta buru-belarri ibili zen hura osatzeko asmoz. Bere ondotik, Claudio Zudairek hartu zuen lan bera.



Konposizioa, historia eta folklorea aztertu zituen Aita Donostiak.

Europako musika izango da protagonista uztailean Getxoko XIX. Jazzaldian

M. ARREGI / BILBO

Uztailaren 5ean hasi eta 9ra arte iraungo du Getxoko XIX. Jazzaldiak. European egiten den jazzaren erakusgarri izango da aurten ere musika ekitaldia, eta urtero legez taldeen arteko lehiaketa ere egingo da.

Getxoko Kultur Etxeak antolatzen duen jaialdiak bultzada eman nahi die talde gazteei lehiaketaren bitartez. Leverkusen-eko Jazzaldiarekin harreman estua daukan Getxokoak Alemaniako lehiaketan irabazle izan den Five Up High taldea ekarriko du aurten.

Euskal taldeei dagokienez, Gazteizko Angel Celada hirukotea egongo da Bizkaiko jaialdian. Espainiatik Jorge Pardo eta Chano Dominguez taldeak etorriko dira. Egitaraua osatzeko Klaus Ignatzek piano jole alemana eta Poloniako Tomasz Stanko tronpeta jolea ekarriko dituzte Getxora.

Lehiakideek SGAE erakundeak antolatzen duen Jazz Kon-

posizioen Lehiaketako azken lana jo beharko dute halaberharrez. Iazko konposizio irabazlea Richard Krull izan zen, 1986ko Getxoko Jazzaldian garaile izan zena, hain zuzen.

LEHIAKETAKO SEI TALDE Jazzaldiko kontzertuak San Nicolas plazan

izango dira denak, gaueko 10etan. Uztailaren 5ean taldeen lehiaketa izango da eta taula gainean Scandinavian Jazz Quartet, Thereeo eta Mikel Andueza Quartet izango dira. Hurrengo egunean Novotnik 44, Science Fiction Quartet eta Woobie Doobie taldeekin jarraituko du lehiaketak. Uztailaren 7a lehiaketako irabazlearen eta Jorge Pardo / Chano Dominguez Quartet taldearen txanda izango da. Biharamunean Five Up High eta Klaus Ignatzek entzuteko aukera izango da eta hilaren 9an Angel Celada Trio eta Tomasz Stanko Quartet taldeek itxiko dute Getxoko Jazzaldiaren XIX. ekitaldia.

Aurten 44 talde aurkeztu dira lehiaketarako, iaz baino 14 gehiago. Hauetatik 39 europarrak dira. Partaideen jaioterriak erreparatuz gero, Danimarka da zerrrendan talde gehien dituen, bederatzi. Holanda, Polonia eta Espainiatik bosna partaide izan dira. Aurten Europako iparraldeko estatu guztietatik jaso dira parte hartzeko eskariak, eta lehenengoz Hungaria, Polonia eta Errusiatik. Azkenik aukeratutakoak Alemania, Austria, Polonia, Danimarka eta Kataluniako taldeak dira.


Mikel Andueza Quartet (Katalunia), SFQ (Danimarka), Thereeo (Austria), Novotnik 44 (Alemania), Scandinavian Jazz Quartet (Danimarka) eta Woobie Doobie (Polonia) dira aukeratutakoak. Lehiaketarako taldeak aukeratzeko batzordea osatu zen eta bertako kide izan dira Pio Lindegaard, Iñaki Zarata eta Mario Benso. Bruselako Hoi-laart Jazz Intl jaialdia antolatzen duen taldeko ordezkari batek ere lagundu du hautaketa lanetan.

G
U
G
G
E
N
H
E
I
M
B
I
L
B
A
O

Berriaren tradizioa

Guggenheim Bildumaren Maisu-Lanak

(1945 - 1990)



maiatzak 10 / uztailak 15

Arte Ederretako Museoa (BBK Aretoa)
Rekalde Erakustaretoa

Honako hauen babespean:

